



 BOOKTEGI

haize hotz batek  
gonzalo etxague



# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

GONZALO ETXAGUE

# haize hotz batek

“Soffia un vento gelido che toglie tutto il coraggio”

Dino Buzzati

Brastakoan haize hotz batek gailurra ospeldu zuen. Mendiak onartutako tartea bukatu zela ulertu zuen Martxelok, altzairuzko postontziaren ondoan eserita eta erpin itsasora begira. Igotzeko nekeak saria izan ohi du, sari bikoitza egun hartan, gailurra hutsik topatu baitzuen, berarentzat bakarrik, gorako bide ia osoa bezala. Esker onekoa izan behar zuen, eta beherako bideari ekitera gonbidatuta zegoela onartu. Komeni da mendiaren mezulariari kasu egitea.

Polarreko kremailera goraino itxi zuen eta inguruan sakabanaturik zeuzkan trepetak aztertu zituen nagi. Pisuagatik termoa baztertu zuen azken unean, ostatuan motxila prestatzen ari zela, baina zein ondo etorriko zitzaion orduan kafe beroa. Eta zein ondo eskailera mekaniko bat, berarentzat propio jarria jaisteko. Gero kendu egingo zuten mendi sakratua ez bortxatzeko.

Okerrena kotxera iritsi eta ostatura artekoa egitea izango zen; gero, herriaren sarrerako auto ilara, aparkatzeko abentura... Maiatzeko zubian ateratzeagatik ordaindu beharreko ordainsaria zen, baina Martxelo langile hutsa zen, egun beltzetan morroi eta gorrietan jauntxo.

Erlojuari begiratu zion, hiru eta erdiak. Ostatuan afaldu nahi bazuen, herritik kanpoko parkinean aparkatzea izango zuen onena. Motxila-eta kotxean uztea onena, eta oinez egingo zuen ostaturaino, arinago berunezko hankak ibiltzeko, dutxa beroaren promesak lagunduta.

Etsita, zaborra jasotzen hasi zen. Ur zurruta egin zuen botilatik motxilan sartu baino lehen. Kranpoiak eta pioleta ondo lotu zituen motxilaren kanpoaldean. Makilak hartu eta azken agurra egin zion gailurrari, esker oneko berriz ere giza jendearengandik ordu batzuek aldentzeko aukeragatik. Maiatzeko zubia izanda, ezin zen kexatu.

Jaisten hasi zen. Harri arteko urrats bakoitzak arreta eskatzen zion, are handiagoa malda pikoan behera, baina lan teknikoa ez zen oztopo buruan

pentsamenduak libre ibil zitezen.

Mendiak masifikatuak daude, Himalaia ere bai, baina nahikoa da ondoko gailur "xume" batera joatea inor ez ikusteko. Egun osoa ia inor ikusi gabe. Igotzen ari zela, glaziarrera iritsi baino lehen, bikote bat beste inor ez, baina beste bide bat hartuta joan ziren haiek, espero bezala ondoko gailurrera igotzeko, gailur altuenera. Eta hara ere ez zuen jendetzarik ikusi.

Non ote zebiltzan asteburuan herria hartu zuten haiek guztiak, familiak, bikoteak eta koadrilak? Agian gailurren batean edo aintzira baten ertzean uretara harriak botatzen ariko ziren, mendiko plana egiten ari zirelakoan, hara errepidetik igo eta kotxea ehun metrora eduki arren. Bapo bazkaltzera joango ziren gero.

Pentsamendu gaizto haiek buruan, di-da iritsi zen leporaino berrehun metro jaitsi ondoren. Amorratzekoa zen azken txanpa hura igotzea zenbat kostatu zitzaion. Eta orain di-da apaldu zitzaion egundoko ahalegin hura. Altuagoa zen beste gailurra, bai, baina askoz ere errazagoa.

Egun hartan bakarra izan ote zen hara igotzen? Ez zen arraroa izango, ezta aste osoan bakarra izatea ere. Gainera, beranduegi zen orain beste inor igotzeko, azken txanpan ez bazebilen, baina ez: ikuspegi ederra zeukan lepoaren ertzetik eta ez zuen inortxo ere ikusten, ez lepotik beherako kanal piko eta malkartsuan, ez haragoko glaziarrean, ez geroko morrenan... Ala bai?

Kanaletik jaisteko sigi-sagari ekin eta berehala konturatu zen oker zegoela: puntu urdina ikusi zuen beheko harrien artean, berrogeita hamar bat metro beherago. Anorak urdina zen eta geldi zegoen. Atsedena hartzen? Ziur. Hortaz, ez zen bakarra izango egun hartan. Mendiak ez du fideltasunik ezagutzen, maitasun laburra baino ez du ematen. Kexu zen arestian jendearen artaldekeriagatik, baina gustura zegoen bere arrangura bakarti hartan. Orain ez zitzaion batere gustatu mendia konpartitu behar hura.

Jaisten jarraitu zuen, adi eta arretaz, lekua delikatua zelako. Aurreko amildegia baino areago beldurtzen zuen belaunetan min egiteak.

Beheko mendizaleak geldi jarraitzen zuen. Atsedena hartzen ari bazen, ziurra zen Martxelo ikusi orduko itxoitea erabaki zuela bidean elkarri trabarik ez egiteko, bidexka nahiko estua baitzen.

Mendizale astun eta solas zale haietako bat ez egokitzea espero zuen Martxelok, ea gizalege haren truke ez ote zion berriketarik kobratu nahi izango. Martxelok ez zeukan zertan estutu, baina ez zitzaion gustatzen inor zain edukitzea. Hark itxoitea erabaki bazuen, hori ez zen bere ardura, are gutxiago akuilua, are gutxiago solasari ekiteko aitzakia. Gainera, bidexka estua bazen ere, nahikoa zen bientzat.

Harengana iristean zerbait esaten bazion, azkar erantzungo zion gelditu gabe, irribarrea ahoan, noski, gelditu gabe.

Baina beheko mendizalea ez zegoen Martxeloren zain. Amildegira begira zegoen, geldi, kokoriko, atzeago zetorren lagun bati itxoiten baizik. Gainera, harri baten atzean zegoen, ezkutatuta bezala. Onduan ulertu zuen egoera Martxelok: laguna iristean, harritik atera eta ezustea emango zion txantxetan.

Mendian txantxa gutxi, are gutxiago halako leku batean. Martxelok muturra okertu zuen eta bere baitan marmarka jaisten jarraitu zuen, zenbat arinkeria mendian eta zenbat zorigaizto horregatik. Mendia masifikaturik dagoelako eta gaur egun edonor etortzen delako. Ez hain aspaldi, gore-texa, GPSa eta gizakiak asmatutako beste idolo faltsuak gurtu baino lehen, errespetua aitortzen zitzaion mendiari, huraxe zen lehen araua eta beste guztiak biltzen zituena. Eguna larrialdietakoei deitzen ez amaitzea baino ez zuen espero, behintzat. Gaitz erdi, mendizale hark benetako mendizalearen itxura zeukan, ekipoa, alegia, txinalak jantzita zetorrenik ere ez baitzen falta azken garaian. Baina, nolana, txantxa gutxi

mendian.

Nahiko hurbil zegoen, hamar metro gorago edo, baina artean beheko gizonak behera begira jarraitzen zuen. Erabat murgilduta zegoen bere hartan, eta Martxelo pentsatzen hasi zen azkenean berak emango ziola ezustea parera iristean. Baina ez, bat-batean agertu zen konkorr bat amildegiaeren ertzetik, buru makurtu bat, enbor erdia, atzeratutako laguna zen, trepatzen eta bere lagunak ezustea emango ziola ezjakin.

Onera, pentsatu zuen Martxelok, une batez gelditzea izango zen, itxoitea eta gero ez ikusiarena egitea. Lipar batez nahikoa da gizakien hutsalkeriak izerdi eta neke piloak lortutako bakea zapuzteko, lehen euri tantak hondartza eguna zapuzten duen bezain azkar. Etsita gelditu zen Martxelo makiletan bermaturik eta gertatu beharreko eszenari begira.

Baina ikusi zuena ez zen espero zuena izan. Anorak urdinekoa agontzen ikusi zuen, katua bezain zalu, eta bitan pentsatu gabe beste mendizaleari oldartu zitzaion. Indar handiz bultzatu zuen laguna amildegirantz eta bat-batean desagertu zen begi-bistatik. Garrasia urruntzen entzun zuen Martxelok, gero danbatekoa, gero beste bat, eta azkenean isiltasuna.

Bertigo itzela sentitu zuen Martxelok, zorabioa, hotzikarak burutik behera astindu zuen, eta artean ez zuen ulertu zer gertatu zen, zer ikusi zuen. Buruak ezustek asimilatzekeo denbora behar du, kontzienteak, hobeto esanda, inkontzienteak ondo zekielako hura hilketa izan zela.

Hilketa borobila, gainera. Mendizaleak larrialdietakoei deitu eta istripua gertatu zela esango zien. Aktore ona baino ez zuen izan behar, eta ez oso ona, nahikoa sinesgarri agertzeko. Gainera, inork susmo txarrik hartuta ere, nola frogatu hilketa izan zela, nola frogatu lekukorik gabe?

Martxelok geldi-geldi jarraitzen zuen eta ez zuen zarata ñimiñorik ere egin, eta

halaxe zegoen anorak urdinekoa ere, amildegira begira oraindik, bere krimenari begira.

Zer egin ote zezakeen Martxelok? Harrien artean ezkutatu? Gora egin atzera? Zegoen bezain geldi geratu anorak urdinekoak beherako bideari ekingo ziolakoan? Motelegi ari zen pentsatzen Martxelo, eta alferrik, halako batean, pentsamenduak entzun balitu bezala, anorak urdinekoak burua bueltatu eta gora begiratu baitzuen, zuzen-zuzen Martxeloren begietara, zuzen-zuzen Martxeloren espantuzko aurpegira. Atzetik norbait begira egonda garondoan hazkura modukoa sentitzen dela egia bada, huraxe sentitu behar izan zuen anorak urdineko mendizaleak. Edo, akaso, Martxelok arnas hotsa egin zuen, edo oin azpian txintxarriren bat karraskarazi... auskalo.

Segundo amaiezinak igaro dira bata besteari begira, geldi, eta halako batean mendizaleak besoa altxatu du, zer edo zer oihukatu dio Martxelori, baina Martxelok ez du ezer entzun, konturatu ere gabe maldan gora trepatzen ari baita ahalik eta azkarren urruntzeko, sigi-saga ahaztuta, ihes. Besteak azkar jaso du bazterretik motxila, bizkarrean trakets jantzi, behera begiratu, gero gora, berriro behera, eta azkenean Martxeloren atzetik abiatu da gora.

Oihu egin dio berriz, eta oihu egiten jarraitu du berak ere gora egin ahala. Martxelok behera begiratu du, mendizalea segika daukala ikusi eta bizkortu egin da. Ez du gelditu nahi, elkarrengandik ahalik eta tarterik handiena utzi nahi du, besteak laster amore emango duelakoan, alferrik ari delako, hobe duelako buelta eman eta ihes egitea.

Arnasa falta zaiola heldu da leporaino. Besoak belaunetan bermatu eta segundo batzuk behar izan ditu bere onera itzultzeko. Behera begiratu du eta hor ikusi anorak urdinekoa igotzen, amore eman gabe. Igotzen jarraitzen du eta ez dago uste bezain urrun.



Taupadak bizkor sentitzen ditu bularrean, nekea eta izua aldi berean, baina korrika txikian hasi da lepo barrura. Damuak hartu du bat-batean: sigi-sagan egin behar zion aurre, kanalean bertan, altueraz baliaturik erraz harriak bota ahalko zizkion igotzea galarazteko, leku ona zen hura, baina lepoa ez, lepoa larre zabala baita, ez da oso malkartsua eta mendizalea erraz babes liteke han eta hemen dauden harri handien atzean, eta harrika erantzun.

Agian, atzera jotzen badu, abantaila berreskuratu ahal izango du... baina ez, beranduegi da, lepora iristeko zorian egongo baita, berarekin topo egingo luke, aurrez aurrekoa izango litzateke borroka. Mendizaleak ez dauka makilarik, hori uste du Martxelok, ez daukala makilarik, pioleta bai, pioleta zeukan motxilan loturik, eta gero igoeran laguntzeko erabili du, erabiltzen ari da. Berak ere badauka pioleta, eta makilak, kranpoiak ere arma izan daitezke. Adrenalinak kemena eman diezaioke aurre egin eta uxatzeko, agian pioleta eskua gora berarengana oldartzen bada, izutu egingo du, baina urduri dago oso, eta besteak argi utzi du hiltzeko gauza dela, norbait hiltzeko odola daukala, buru hotza... Ihes egin behar du, aurrera jarraitu behar du, ihes, besteak laster amore emango duelako.

Ezkerraldean, aurreko gailurrera bueltatzea dauka, baina bide itsua da hura; eta aurrekoa, lepoaz bestaldeko amildegitik jaistea, erokeria da sokarik gabe. Ihesbide bakarra eskuinaldean dago, beste gailurrera iristeko bide zaharretik, ehiztarien bidexkatik.

Lepoa ixten duten orratz ilararen eta beheragoko amildegia arteko faja pikotik doa bidea, eta mapan markatuta badago ere, ez GPSean, istripuak zirela-eta GRtik kendu baitzuten. Nebero handia, malda pikoak, harritzar batzuk eta erlaitz delikatu pare bat zeharkatu behar dira, eta harexegatik baztertu zuen Martxelok goizean egun berean bi gailurrak egiteko asmoa, estreinakoz lepora

iritsi zenean handik joateko aukera onik ikusi ez zuelako. GRtik kendu bazuten...

Orain, baina, ondo etorriko zaio ibilbidea aztertu izana. Azkar joan behar du, anorak urdinekoa lepora iritsi baita. Berriz hasi da oihuka eta imintzioka, besoei eragiten, baina Martxelok korrika jarraitu du eguzkiak ferekatzen dituen orratz beltzen azpira. Haize boladek atzeko mendizalearen arnas-garrasiak isiltzen eta handitzen dituzte tarteka.

Fajara iritsi denean, ez du bidezidorrik ikusi, eta seinale marka bakarra GRren bide okerreko ixa zuri-gorria da harri batean margoturik. Aurrean faja hutsa dauka, amildegiak moztutako magal zerrenda.

Atzera begiratu du. Arestian bera gelditutako leku berean dago orain mendizalea, besoak belaunetan bermaturik, buruz behera, arnasa berreskuratzen. Laster etsi behar du, etsita ez badago. Zorrotz aztertu du Martxelok. Prismatikoez hobeto ikusi ahalko balu ere, baina prismatikoak motxilan dauzka, ez du denborarik galdu nahi. Ziur esaterik ez dauka, baina ez bide du kranpoirik. Agian motxila barruan izango ditu. Ez daki, baina ez badauka kranpoirik, abantaila handia dauka berak neberora iritsita, ezin izango dio jarraitu.

Mendizalea orain luzatu egin da, gora begira hartu du arnasa, hodeiak ere irentsi nahian, eta airea bota duenean orroa egin du, dunbotsa bihurturik inguruko hormatzarren artean. Lasai asko erantzi du motxila, botila hartu eta edaten hasi da; gero, zer edo zer jaten hasi da, barra energetikoa edo, urrundik Martxelorri zorrotz begira. Ez, ez du etsi, jazarpenean jarraitzeko prestatzen ari da, eta Martxelo denbora galtzen.

Hilketa lekutik urrundu izana hiltzailearen mesederako da, orain konturatu da Martxelo horretaz, egun eta inguru berean bi amildu izatea arraroa baina posible baita; bi istripu toki berean, ordea, edonoren susmo txarra pizteko modukoa. Ez da pentsamendu lasaia Martxelorentzat. Badoa korrika, badoaz biak.

Urrundik, haranaz bestaldeko mendietatik bi puntu ikusiko lituzke begi zorrotzen jabe den batek, puntu urdina eta puntu gorria harrizko hormatzarraren eta amildegiaeren artean, Martxeloren anoraka gorria baita. Gorria ere bazen hildakoarena. Berrogeita hamar metroko tartea dago bien artean, eta urrundik poliki mugitzen ari direla dirudi, halaxe irudituko litzaioke balizko lekukoari arretaz aztertu eta kalkulurik egin ezean, baina korrika ari dira biak, ahalik eta bizkorren, faja estuak uzten dien neurrian. Harrapakina aurretik eta harraparia atzetik. Faja makurtzen edo estutzen denean baino ez dute martxa moteltzen, horrelakoetan estropezu txikiak ere amildegitik behera eramango baitu baldarra.

Hango urduritasuna eta larritasuna ere ez lituzke sumatuko haranaz bestaldeko lekukoak, ez luke sumatuko Martxelok dardarka dituela hankak, eta bere urratsak gero eta traketsagoak direla.

Badaki Martxelok ez dela nekea bakarrik, izu-ikara baizik, inoiz sentitutako handiena, arrotza bezain ezaguna. Lehendabizikoz heriotzaren beldur bada ere, ordura arte inoiz bizitza salbatzeko korrika egin behar ez badu ere, ezaguna zaio egoera, geneetan grabaturik, behinolako sena, leku eta egoera berean baina hamar mila urte lehenago ehiztari jazarriak piztiaren batengandik ihesi izango zuen sen berbera.

Baina oraindik bere buruaren jabe da, itxaropena dauka. Neberora iritsi behar du, eta ordurako besteak amore eman ez badu, orduan emango du, aurrera jarraitu ezinik. Haraino, ordea, tartea utzi behar du Martxelok bien artean, ahalik eta handiena, kranpoiak janzteko astia izango badu, eta pausoa arindu du.

Behar bezala korrika egitea baino areago kostatzen zaio taxuz pentsatzea. Ihesaldi itsua da eta tximistak bezala jotzen dute pentsamenduek buruan, bere bizitzako argazkiak aparteko muntaketan, ezkontzetako muntaketa horietako batean bezala.

Ama etortzen zaio burura eta haserre baztertzen du irudia, ez amagatik propio, bere alabaz lehendabizikoz ez gogoratzeagatik baizik, baina segituan emazte ohiak hartzen du lekua, ez, kontzentratu behar du, neberora iritsi behar du, horretan jarri arreta, eta urrats bakoitzean, ezin du sinetsi egoera horretan dagoenik, ordu erdi lehenago mendia patxadaz jaisten ari zen, mendizale arrunt bat maiatzeko zubian, eta orain mendizale hura dauka orpoz orpo. Zergatik ez du amorarik eman? Zergatik jarraitzen dio amorru biziz? Txakur amorratua da, ez pertsona! Neberora iritsi behar du.

Azkenik lortu du irudi bakarra finkatzea, eta ez da ez oroimenetik ez beldurretik ateratakoa. Erlaitz konkor estu baten atzean neberoa agertu da, azkenik, hamar bat metrora, faja zabaltzen den lekuan. Atzera begiratu du eta denbora kalkulatu du bestea parera iristeko eta berak kranpoiak jantzeko. Azkar ibili beharko du.

Izotz ertzera iritsi baino lehen, motxila erantzi eta kranpoiak motxilatik askatu ditu azkar. Ez du eseri nahi, baina eseri behar izan du jantziko baditu. Ezin du begirik kendu atzean utzi berri duen erlaitzetik, bat-batean mendizalea uste baino lehenago agertuko ote den beldur, baina badaki ezinezkoa dela hain azkar iristea, oraindik tarteak daukala. Hotz pentsatu behar du, lasaitu, buruaren jabe egin, hanken eta besoen dardara kontrolatu kranpoiak jantzeko.

Lehen kranpoia lotu du. Erlaitzean ez dago bestearen arrastorik. Bigarrena jantzen hasi denean, arnasestuak entzun ditu, gero eta ozenagoak, badator, hurbil da, edonoiz agertuko da erlaitzaren bueltan, kranpoiaren uhalak trabatzen zaizkio, hatzak baldarrak dira, eta han agertu da, han dago.

Azken uhala ozta lotu du Martxelok. Motxila azkar jantzi eta neberoan sartu da. Korrika egiteko tentaldia handia da, baina ondo daki urratsez urrats baino ezin duela egin. Bidea, noski, markatu gabe dago. Izotzezko hogeit metro baino gehiago

ditu aurrean. Eta atzean mendizalearen arnasestuak, zezelten dituen arnasestuak, eta hitzen antza hartzen duten arren, Martxelok ezin du ezer ulertu, ezta ulertzeko ahaleginik egin nahi ere. Aurrera doa izotzean zehar salbaziora.

Mendizalea izotz ertzean geratu da, berriz besoak belaunetan bermaturik, makurturik. Hamar segundo baino ez ditu eman horrela izotzetan saiatu den arte, hiru urrats egin ditu laprast egin baino lehen, eta pioleta sartu izan ez balu, behera joango zen. Pioletaren laguntzaz aurrera joaten saiatu da gero, baina laster konturatu da alferrik ari dela, eta harrira bueltatu da. Arnas berreskuratu urriak ametituko dion madarikaziorik ozenena bota du.

Amore eman behar duk!, xuxurlatu du Martxelok bere baitan, garaitu haut!

Eta badoa izotzetan barrena, txakur amorratua bere etsian atzean utzita. Ezin du sinistu, baina irribarrez doa orain. Zalantza egin zuen egunsentian kranpoiak eraman ala kotxean utzi, eta ordura arte behar ez baditu ere, ezta glaziar gero eta urriagoan ere. zuhurtziak salbatu du orain. Hobe zen termoa utzi eta kranpoiak eramatea, bai.

Mendizaleak, ordea, ez du oraindik amore eman nahi, harrapakinak nola ihes egin dion ulertzen ez duen txakur amorratua bezala dabil bere baitan bueltak ematen, inguruan miatzen aurrera jarraitzeko. Arroilan gora hasi da, nebero estutzen baita han, inbutu baten moduan. Erpinaren gainetik pasatzea ezinezkoa da, horma bertikal batek ixten baitu, baina hara iritsi baino lehen hiru bat metro zabal baino ez da izotza. Halere, bestaldean jarraitzen du horma horrek hamar bat metroz behera fajako maldara iritsi arte. Eroturik egon behar saiatzen pentsatzeko ere.

Alferrik ari haiz, pentsatu du Martxelok, baina arinago joaten hasi da, ez hain lasai, ez arestian bezain ziur. Neberoaren bi heren eginak ditu mendizalea pasabidera iritsi denean. Pentsatu baino azkarrago iritsi da hara, eta Martxelo

areago estutu da. Ezinezkoa da handik kranpoirik gabe jaistea, erokeria, baina arinago doa Martxelo, pausoa azkartu du, irribarrea ahaztu, tarteka gelditu mendizalearen zereginak aztertzeko, gero damutu gelditzeagatik eta azkarrago abiatu.

Izotzezko hiru metro zeharkatu behar ditu mendizaleak bestaldera iristeko. Motxila erantzi eta bazter batean utzi du arinago joateko, ez du eramango. Izotza bigunago dago erpinetik hurbil eta pioletaren laguntzaz ez du arazorik izan. Hormari itsatsita jaistea bestelakoa da, ordea. Hasieran errimaiak harritza zerrenda utzi arren, estuagoa da gero, eta zentimetro batzuetako tartea baino ez dago izotzaren eta haren azpitik hondoratzen da hormaren artean. Ertzean kokoriko jarri da maldari begira, eskuineko eskua hormako arrakalatxo batean bermaturik eta bestea izotzetan sartutako pioletari eusten. Halaxe geratu da tarte batez, blokeaturik eta oinak ondo bermatu ezinik.

Martxelo neberoaz bestaldera iritsi eta kranpoiak erantzten ari dela ikusi du mendizaleak, ihes egingo dio. Gorputza luzatu eta irristatzen utzi du pixka bat, pioleta izotzetan berriz sartu eta beste puska bat jaitsi du hormako beste arrakalatxo batez baliaturik. Laster iritsiko da magalera pauso txarrik eman eta amildu ezean. Hartutako arriskuak galtutako tartea berreskuratzen lagunduko dio, pauso txarrik eman eta amildu ezean.

Martxelo konturatuta dago lehen baino okerrago dagoela orain. Arineketan hasi da, ezin dio abantailarik eman, bai tarterik handiena utzi euren artean. Fajako maldarik pikoena da eta areago estutuz doa neberotik. Hormatzarra bertikala dauka mendi aldean, eta ezin gertuago ibili behar du, bereziki erlaitzetan, harriari itsatsita. Fajatik behera malda dagoenean, bazterreko landaretza urriak eusten die harriei, baina handik behera harri solteak amildegiraino iristen dira. Horregatik, eskuineko makila baino ez du erabiltzen, beste eskua hormako zirrikitu eta

kosketan aseguratzeko.

Berrehun metro gehiago eta arroilatik igotzen hasi ahalko da ondoko gailurrerako bidera iristeko. Goiko bidera iritsita, erraza izango du ihesbidea maldan behera; bestela, lehenago aurre egin behar badio, arroilatik igo eta harrika egin ahal izango dio, aurre egin bai, neberotik amildu gabe fajara iristea lortu badu besteak. Ez daki lortu duen, orain ezin du ikusi, fajak hainbat koska dituelako nebero atzean utzita. Baina lortu badu, leher eginda egongo da, eta Martxelok arnasa eta sasotik pixka bat berreskuratu du izotzetan barrena ezinbesteko pauso mantsoan.

Haizeak bere parte eman nahi du orain. Gogorrago dabil mendiak barrura egin baino lehenagoko bueltan, eta haizeak beti larriagotu egin dio bertigoa Martxelori. Atzera begiratu duenetako batean itzal urdina ikusi uste izan du fajako buelta batean. Bizkortu egin da. Atzera berriz begiratu eta ondo ikusi ahal izan du orain, atzetik jarraitzen dio oraindik, eta estualdiak hartu dio bihotza Martxelori. Ez du ulertzen, ezin du ulertu amorru hori, kemen hori. Zer egiteko gauza ez ote da izango harrapatzen badu!

Berriro blokeatzen hasi da, ezin du pentsatu, baina mendizalea gero eta gertuago dauka. Azkenean ulertu du, motxilarik gabe arinago doa hura. Berak ere motxila utzi beharko luke, baina ez daki, ez da une batez ere gelditzera ausartzen, eta hain gutxi falta zaio arroilara iristeko.

Pareta aurrean dauka ia, eta harri batean orban gorria ikusi du, hingatutako marka zaharra, bideak handik gora jarraitzen du. Baina ez du ulertu zergatik egin duen talka harri batek orban gorriaren ondoan; eta segituan beste harri batek belarria urratu dionean ere ez du berehala ulertu mendizalea harrika ari zaiola atzetik. Amorrua sentitu du, gelditu eta bera ere harrika erantzuteko gogo piztu zaio. Horixe nahi du mendizaleak, arroilatik gora egin ez dezan. Baina Martxelo ez

da gelditu eta gora hasi da ahalik eta bizkorren.

Laurogei bat metro gora ditu beste bidera iristeko. Ez da asko. Sigi-saga piko eta azkarra granitozko hormatzarrean. Maiz eskuekin trepatu beharra dago, eta lur urrian egindako ildoak dira bide zuzenari jarraitzeko ia pista bakarra, harri meta gehienak erorita baitaude. Sokak erabili behar ote diren zalantzazko leku horietako bat, horregatik arriskutsua, horrelako lekuek konfiantza sortzen dutelako. Teknikoagoa eta berez arriskutsuagoa izatera, jendea adiago ibiliko litzateke, eta istripu gutxiago gertatu. Erraz ulertzen da, beraz, bi gailurren arteko pasabidea ibilbidetik baztertu izana.

Martxelo antzeko hausnarketan ibiliko litzateke bide hura erronka hutsagatik aukeratu izan balu, ez bizitza salbatzegatik. Gainera, sigi-sagaren ondorioz askoz ere hurbilago ikusten du mendizalea, eta halaxe dago zinez, bien arteko tarte zuzen eta bertikala aintzat hartuz gero, benetako tarte antzekoa den arren. Baina sentsazioak pisu handiago dauka eta Martxelok ezin du etsipena burutik kendu. Urraturik dauzka eskuak harrien artean trepatzeagatik; urduritasunak, neke hutsak eta arnas faltak hanken eta besoen kontrola galarazten diote. Uste baino ahulago dago. Hogei metro baino gutxiago geratzen zaizkion arren, ezinezkoa iruditzen zaio, metro bat ere ezinezkoa, eta badaki une batetik bestera ziplo eroriko dela indarrik gabe, badaki gora iritsita ere, anorak urdineko deabru horrek jarraituko diola atsedetik gabe. Arnasestuak negar zotinarekin nahasten zaizkio, alaba, ama, aita... emazte ohiaren irudia ere badatorkio, eta ez du uxatzen.

Belauniko erori da gora iristeko hamar bat metro baino geratzen ez zaizkiola. Ezin du gehiago, amore eman du. Zarata entzuten du, norbaitek bere ondoan akordeoi urratua modu frenetikoan hauspotuko balu bezala, eta kostatu egin zaio zarata bere arnasak egiten duela konturatzea, baina bost axola, hobe bihotzekoak joko balu oraintxe bertan, amore eman du Martxelok anorak urdinekoak gora



jarraitzen duen bitartean. Laster hartuko du.

Harriaren kontra bermatu da. Zerura begira denboraz ahaztu da, minutu bat, bi, bost... agian segundoak dira, ez minutuak. Urrun entzuten du dena, belarrietan tapoiak jarrita bezala. Konortea galtzeko zorian dago mendizalea hurbiltzen entzun duenean. Negarrez hasi da, ezin da altxatu, ez da harritxo bat eskuan hartzeko gauza ere. Eta badator, trepatzen ari da, burua agertu du, aurpegia hurbiletik ikusi dio Martxelok, baina une batez ez da Martxelo, une batez bere baitatik ateratako piztia da. Agondu egin da, besoak luzatu eta ahalik eta indartsuen bultzatu du anorak urdinekoa amildegira. Berrogei metro behera egin du harrien artean talka egin arte.

Han ikusi du Martxelok altxatu eta ertzetik begiratu duenean: besoak zabalik, hankak okertuta eta burua odoletan bilduta.

Poza sentitu du, disfrutatu duela onartu eta gustura hartu. Mendizalearen izu aurpegia gustatu zaio, putakumeak ez zuen espero. Bat-batean indarberrituta sentitzen da, bidea bukatu eta kotxera iristeko gogoz, gertatutakoa ahaztu. Ez du salatuko, azalpen gehiegi eman beharko lituzke eta agian ez liokete sinistuko. Pozik ikusiko ditu albisteak: “bi mendizale hilda... neurriak hartzea eskatu... istripuek berriz dolua ekarri dute menditik...”. Hamar metro gora eta gero dena maldan behera. Azken begirada eskaini dio mendizaleari, txistua bota dio buelta eman baino lehen. Eta, hain zuzen, buelta ematean ikusi du: goian norbait dago hari begira, ikusitakoak izututa, ezbaian, korrika hasi edo zer egin ez dakiela.

Martxelok besoak altxatu ditu, gelditzeko esan dio, ez dezala gaizki pentsatu, ez dela hilketa izan, bere burua babesteko egin behar izan duela, bestea zela hiltzailea, bera dela biktima... Baina goiko mendizalea aspaldi hasi da ihesian. Eta Martxelok jarraitu egin dio atzetik azalpenak eman behar baitizkio, gaizki-ulertua azaldu, ulertarazi...